

Jakinarazten dizut honako dekretu hau eman dela:

**2026/345 DEKRETUA
2026/03/04**

“Gorka Artola Alberdik, Bergarako Udaleko Alkateak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 21.1 atalean xedatutakoaren arabera, gaia aztertu eta ebazpena eman dut.

IKUSIRIK

Bergarako Udalak Obra eta zerbitzuetako teknikari lanpostua behin betiko betetzeko deialdia egitea eta deialdiaren oinarriak onartzea erabaki zuela 2024ko abenduaren 12an emandako alkatearen dekretu bidez.

KONTUAN HARTURIK

Prozesu osoan izandako emaitzak kontutan izanda, epaimahaiak prozesuko behin betiko puntuazio orokorrak onartu eta argitaratu dituela, eta horien araberrako izendapen proposamena eta lan poltsa osatzeko proposamena egin duela.

Hau guztia eta deialdia arautu dituen oinarriak kontutan izanik, honako hau

ERABAKI DUT

Lehena.- Epaimahaiak proposatutako Obra eta zerbitzuetako teknikari lanpostua behin betiko betetzeko hautaketa-prozesuko behin betiko puntuazio orokorrak aintzat hartuta eta epaimahaiaren proposamenari jarraituz, Garazi Baños Monasterio (**5616**) izangaia Obra eta zerbitzuetako teknikari lanpostua behin betiko betetzeko funtzionario izendatzea.

Izendapena 2026ko apirilaren 1ean sinatu eta indarrean sartzea, sei (6) hilabeteko praktikaldiarekin eta oinarrietan jasotako baldintza eta eraginekin.

Bigarrena.- Halaber, Udaleko Obra eta Zerbitzuetako teknikari posturako aldi baterako kontratazio-premiei erantzuteko edo udalean profil horrekin egon daitezkeen beste kontratazio-premiei erantzuteko lan-poltsa osatzen da:

Hurrunkera	NAN	Izen eta abizenak
1	**5450**	ENEKO ERAUNCETAMURGUIL EXTREMERA
2	44**29**	JANIRE ELORDI LOYOLA

Hirugarrena.- Erabaki hau jakinaraztea interesdunei eta Pertsonal Sailean. Halaber, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, udaleko web-orrian eta iragarki-taulan argitaratzea.

Erabakiaren aurkako errekurtsuak:

Erabaki hau finkoa da eta amaiera eman dio administrazio-bideari.

Honen aurka aukerako berraztertze errekurtsua edo administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez daitezke.

a) Auzitara jo aurretik, eskatzaileak, hala nahi izanez gero, erabakia berraztertze errekurtsua aurkez dezake, 39/2015 Legearen 123 eta 124 artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritz (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena):

- Epea: Hilabete bat, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita.

- Non: Alkatetzara jo behar da.

b) Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkez dezake zuzen-zuzenean, uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 25. eta 46. artikuluetan agintzen denaren ildotik:

- Epea: Bi hilabete, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.

- Non: Donostiako Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegira jo behar da.

c) Berraztertze errekurtsuaren erantzunaren aurka jotzeko:

- Epea: Bi hilabete, berraztertze errekurtsuaren erantzunaren jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita.

Aldiz, administrazioak berraztertze errekurtsua erantzun gabe utziko balu, interesdunak edozein momentutan aurkeztu ahal izango du administrazioarekiko auzi-errekurtsua, berariazko araudiaren arabera presuntziosko ekintza gertatu den biharamunetik aurrera.

- Non: Donostiako Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegira jo behar da.”

Eta behar diren ondorioetarako, jakinarazpen hau eman eta izenpetzen dut. Bergaran, sinadura datan.

**Idazkaria
Xabin Juaristi Arrieta**

